

# EUSKERAZALEAK

Ez da oitura barria omenaldiak egitea.  
Omenaldiak bear dira. Ba-dagoz txaloak eta goratzarreak irabazi dituen gizonak.  
Eta ondo egiten ba' dira, ondo dagoz.

\* \* \*

Baiña ba-dauke omenaldiak be euren arriskua.  
Arrisku au, irabazi ez daunari omen egitea da, esaterako orain urte  
batzuk Gernika'ko agintariak Franco'ri egin eutsoena. Orain zuzenketea egin bear izan da.

\* \* \*

Olako omenaldiak ez dira sortzen erritik, urdail eskertsuak egiñak izaten dira.  
Mesedeak artu dabez, izen ona ta dirua lortu dabez, eta jauntxoa  
goratu bearra asmatzen dabe barru-barruan.  
Eta bakoitxak daukan esker on ori, urdaillaren esker on ori, agertzeko erriari  
egiten dautsoe dei. Erri leuna, erri zea, sarritan uste onez, olako jokoan sartzen da.

\* \* \*

Erria orrelan erabiltea saldukeria izaten da. Gogoratu barrero  
Gernika. Munduaren aurrean, zeaztasunak jakiteko erarik ez dauan gizartearen  
aurrean, esker oneko lez agertzen da. Zori onez, azkenean egiak argi egin dau.

\* \* \*

Omenaldiak egiteko, kontuz ibilli bearra dago ba. Ondo aztertu nori omen egin, nori  
esker ona agertu, nori txaloak jo, eta nor dan jakin eta gero, baita,  
zergaitik ori egin be gogoan artu bear.

\* \* \*

Naparroa'ko Aldundirantza begiratzen ba'dogu, an izan dan omenaldi bat  
aztertu ezker, ez dot uste onartzekoa ta irabazia danik, omen egiten  
dautsoenen ustez gauza on bat egitea naikoa ez ba'da beintzat.  
Omenaldiakaz, kontuz!

OLAZAR'tar MARTIN'ek

## IZKI-NASTEAREN ERANTZUNA

